

LEKUKOTASUNAK-GALDEKETA

Beren seme eta alabentzat bataioa eskatu duten familiekin egiteko saioetarako materialak prestatzen dihardugu. Hiru saio egingo genituzke:

Izaten ikasi

Sinesten ikasi *Eta zuek... Nor naizela diozue?* (Mk 8, 29)

Kide izaten ikasi

“Sinesten ikasi” saioan, partaideek Nazareteko Jesusi buruzko galdera egin dezatela dugu helburutzat. Merezi du Jesusen bizimodua ezagutu eta gauzatzeak?

Jesusek eta Berri Onak gu bezalako gizon eta emakumeen bizitza zentzuz bete dezaketen zorientasunezko proposamena eskaintzen dutela antzematen lagundu nahi diegu.

Hori dela-eta Nazareteko Jesusen jarraitzaile izateak zer esan nahi duen adieraziko duten pertsonen lekukotasuna entzungo dugu.

Hauxe eskatzen dizugu:

Graba dezazuela hiru minutu inguruko bideoa, ondorengo hauetako batzuei erantzunez:

- ❖ Gaur federik gabe bizitzeko aukera izanda, zer ematen dit Jesusek proposatzen didan bizimoduak?
- ❖ Bizitza bera izango nuke Jesusekin eta Jesus gabe?
- ❖ Zer dela-eta da arrazoizkoa gaur Jesusengan sinestea?
- ❖ Zer esan nahi dut Jesusek bizitzari zentzua ematen diola esatean?